

AKTA / ACTA
GIZARTE KONTSEILUA/ CONSEJO SOCIAL

Deialdia egin duena Convoca	Daniel Zulaika Presidentea / Presidente
Data, tokia eta ordua Fecha, lugar y hora	2121eko, azaroak, 4 / 4 de noviembre de 2021 Donostiako Udala (Areto nagusian) / Ayuntamiento de San Sebastián (Salón de Plenos) 16:30 (1. deialdia) /16:30 h (1ª convocatoria) 17:00 (2. deialdia) /17:00 h (2ª convocatoria)
Amaiera ordua Hora de finalización	18:43 h

GAI-ZERRRENDA:
ORDEN DEL DÍA

Gai zerrenda	Orden del día
1.- 17:00-17:05	
Aurreko bilerako akta irakurtzea eta onartzea	Lectura y aprobación del acta de la sesión anterior
2.- 17:05-17:10	
Sarrera DANIEL ZULAIKA	Introducción DANIEL ZULAIKA
3.- 17:10-17:20	
Hiriaren gaur egungo alderdiak ENEKO GOIA	Aspectos actuales de la ciudad ENEKO GOIA
4.- 17:20-18:20	
E2030DSS Helburuak eta ildo Estrategikoak KEPA KORTA	Objetivos y líneas Estratégicas E2030DSS KEPA KORTA
5.- 18:20-18:50	
2021eko aurrekontu-egoera eta 2022ri dagozkion lehentasunezko ildoak JAIME DOMINGUEZ-MACAYA	Situación presupuestaria 2021 y líneas prioritarias del correspondiente a 2022 JAIME DOMINGUEZ-MACAYA

6.- 18:50-19:00	
Eskaerak eta galderak	Ruegos y preguntas
19:00	
Saioaren amaiera	Cierre de la sesión

BILERAN PARTE HARTU DUTE:
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

AGIRREZABALA	ISABEL	TURISMO SOZIETATEAREN AHOLKU BATZORDE KONTSEILUA - CONSEJO CONSULTIVO DE LA SOCIEDAD DE TURISMO (Donostia Turismo)
ANTON REMIREZ	RAUL	NAFARROAKO UNIBERTSITATEA - UNIVERSIDAD DE NAVARRA - TECNUN
ARCELUS	OIHANE	ELKARGO PROFESIONALEK COLEGIO PROFESIONALES COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE GIPUZKOA GIPUZKOAKO GIZARTE LANGINTZA ELKARGO OFIZIALA
ARRILLAGA	AINHOA	MATIA FUNDAZIOA-FUNDACIÓN MATIA
ARZALLUS	M. NEKANE	UDAL TALDEA – GRUPO MUNICIPAL PNV-EAJ
ARZELUS	ANDER	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA
BARCENA	FÉLIX	ZAHARREN TXOKOAK- HOGARES DE JUBILADOS (GOIKO GALTZARA ELKARTEA/ASOCIACION)
BERNARAS	AMAIA	GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEA - PARQUE CIENTÍFICO Y TECNOLÓGICO DE GIPUZKOA
CARRERE	REYES	UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL EH BILDU
COROMINAS	BORJA	UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL PP
DIEZ MINTEGUI	FERNANDO	HERRITAR MEREZIMENDUAREN DOMINA MEDALLA MÉRITO CIUDADANO (BERA BERA R.T. Club Deportivo)
DÍEZ MUIÑO	RICARDO	DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTRE
ECHEZARRETA	ARRATE	FAMILIA URGARIEN ELKARTEAK - ASOCIACIÓN FAMILIAS NUMEROSAS (LILURALDI)
ERAÑA	JESÚS M^a	BETERRI-KOSTAKO INDUSTRIALDEA, S.A (Zuatzu)
GARCÍA	IÑIGO	MERKATARITZA KONTSEILUA - CONSEJO COMERCIO (San Sebastián Shops)
GOIA	ENEKO	DONOSTIAKO ALKATEA-ALCALDE SAN SEBASTIÁN
GONZALEZ	IGOR	DBUS –DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA/ COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN
JOHN	BELKIS	ETORKINEN KOLEKTIBOA - COLECTIVO DE INMIGRANTES (ASODEUS)
KORTA	KEPA	DONOSTIAKO ESTRATEGIA BULEGOA- OFICINA DE ESTRATEGIA DE SAN SEBASTIÁN
LAGÉ	CRISTINA	UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL PSE
LEKUONA	PILAR	LEHENDAKARIORDEA - VICEPRESIDENCIA ELKARGO PROFESIONALEK - COLEGIO PROFESIONALES (ERIZAINZAKO ELKARGOA/COLEGIO DE ENFERMERIA)
LICEAGA	PAUL	ADEGI
LUQUIN	ELENA	GIZARTE EKINTZA KONTSEILUA - CONSEJO ACCIÓN SOCIAL (GURUTZE GORRIA)

MARTINEZ	KINO	GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA - ASOCIACIÓN DE EMPRESARIOS DE HOSTELERÍA DE GIPUZKOA
MARTINEZ ETXABEGUREN	LUIS ANTONIO	HIRITARRA /CIUDADANO
ORMAZABAL	EDURNE	TABAKALERA
OTEGI	KORO	GIPUZKOAKO BAZKUNDEA -CÁMARA DE GIPUZKOA
TELLEZ	OSCAR	CADENA SER
TORRIJOS	KEPA	GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZAKO KONTSEILUA - CONSEJO COOPERACIÓN Y EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO (ADSIS FUNDAZIOA)
VILES	JUAN RAMON	PARTAIDETZAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA CONCEJAL DELEGADO DE PARTICIPACION CIUDADANA
ZULAIKA	DANIEL	LEHENDAKARIA - PRESIDENTE HERRITAR MEREZIMENDUAREN DOMINA MEDALLA MÉRITO CIUDADANO

BERTARATZEA DESENKUSATU DUTENAK / EXCUSAN ASISTENCIA:

ETORRI EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

AIZPURUA	ANDER	KUTXA (GIZARTE EKINTZA - OBRA SOCIAL)
APAOLAZA	XABIER	OROIMEN HISTORIKOAREN KONTSEILUA – CONSEJO DE LA MEMORIA HISTÓRICA (Genozidioaren biktimen elkarte)
ARANBURU	HARKAITZ	AUZOTAR ELKARTEA//AAVV AMARA BAI(AMARA)
ARANETA	AITZOLE	UDAL TALDEA – GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN DONOSTIA
ARRIETA	MADDI	LAB
ARTOLA	GEMA	GURASO BAKARREKO FAMILIEN ELKARTEAK - ASOCIACIONES DE FAMILIAS MONOPARENTALES (ASFAMOGI)
ARZALLUS	MARIA SOLEDAD	HIRITARRA /CIUDADANA
BARBA VERA	SANTIAGO	HIRITARRA /CIUDADANO
BERRIOZABAL	JONE	EUSKO JAURLARITZA - GOBIERNO VASCO
BERZOSA	JUAN CARLOS	AUZOTAR ELKARTEA//AAVV LANTXABE (AIETE)
CABALEIRO	BEGOÑA	INGURUMEN KONTSEILUA - CONSEJO MEDIO AMBIENTE (Emaus Fundazioa/Fundación Emaus)
CIGANDA	PEDRO	ZAHARREN TXOKOAK - HOGARES DE JUBILADOS (ERDIALDE ELKARTEA/ASOCIACION)
DIAZ	LALA	BERDINTASUNAREN KONTSEILUA - CONSEJO IGUALDAD (Asade Elkarte)
DIAZ	MANU	KIROL FEDERAZIOAK-FEDERACIONES DEPORTIVAS- (FUTBOL FEDERAZIOA/FEDERACIÓN DE FÚTBOL)
DIEZ	JOSÉ M ^a	UGT
FERNANDEZ	MIREN ARANZAZU	AUZOTAR ELKARTEA//AAVV AVERIL (LOIOLAKO ERRIBERAK)
FORNIES	HAIETT	GAZTE KONTSEILUA - CONSEJO JÓVENES
GARCÍA	JOSE M ^a	CCOO

GARCÍA	CARLOS	MONDRAGON UNIBERTSITATEA
GARCIA CERRATO	LETICIA ROSIBEL	HIRITARRA /CIUDADANA
GARCIANDIA	PEIO	MONDRAGON KORPORAZIOA - MONDRAGÓN CORPORACIÓN
GARCÍA-VELILLA	RAFAEL	UDAL PLANEAMENDUKO KONTSEILUA - CONSEJO PLANEAMIENTO MUNICIPAL (Ondarearen Defentsa Elkartea/Asociación Defensa Patrimonio)
GOMEZ	BORJA	KIROL ELKARTE KONTSEILUA - CONSEJO CLUBES DEPORTIVOS (San Sebastián Gipuzkoa Basket)
GOMEZ SAN JOSE	MARIA TERESA	HIRRITARRA /CIUDADANA
GONZALEZ	ZURINE	EUSKARAREN KONTSEILUA - CONSEJO EUSKERA (BAGERA ELKARTEA)
INSAUSTI	AIMAR	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA - UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
IRAOLA	ANDONI	REAL SOCIEDAD
IRIGARAY	ESTHER	GIPUZKOAKO FUNDAZIO OZEANOGRAFIKOA FUNDACIÓN OCEANOGRÁFICA DE GIPUZKOA
LEZA	IMANOL	EUSKO TREN
MALKORRA	MIKEL	MINUSBALIOTASUN FISIKOAK DITUZTEN PERTSONAK KOORDINAKUNDEKO ORDEZKARI BAT - REPRESENTANTE COORDINADORA DE PERSONAS CON DISCAPACIDADES FÍSICAS
MARTINEZ	IÑAKI	GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOA FEDERACIÓN MERCANTIL COMERCIANTES DE GIPUZKOA
MARTINEZ DE ARTOLA	PEDRO	MUGIKORTASUN KONTSEILUA - CONSEJO MOVILIDAD (RACC)
PEREZ IRAZUSTA	ICIAR	OSAKIDETZA (Donostialdea ESI / OSI Donostialdea)
PILAPANTA	GABRIEL ESTEBAN	HIRRITARRA /CIUDADANO
RIEZU	XABIER	DEUSTOKO UNIBETSITATEA-UNIVERSIDAD DE DEUSTO
RIÑÓN DIEZ	JOSE M ^a	RENFE ALDIRIKOAK - CERCANÍAS
SALABERRIA	AITOR	KULTUR KONTSEILUA - CONSEJO CULTURA (Taller Kultur Lantegia)
SÁNCHEZ	JOSE MANUEL	AENA DONOSTIAKO AIREPORTUA - AEROPUERTO DE SAN SEBASTIÁN
SÁNCHEZ	MIKEL	AUZOTAR ELKARTEA//AAVV Morlanstarrak Auzo Elkartea (MORLANS)
TABERNA	DAVID	DIARIO VASCO
TELLERIA	JOAQUIN	PASAIKO PORTUKO AGINTARITZA/AUTORIDAD PORTUARIA PASAJES
URBIETA	USOA	IKASLEEN GURASO ELKARTEAK - ASOCIACIÓN DE PADRES Y MADRES DE ALUMUNNOS Y ALUMNAS - AMPAS (BAIKARA)
		AUZOTAR ELKARTEA//AAVV PARTE ZAHARREAN BIZI(PARTE ZAHARRA)
		ELA SINDIKATUA
		KULTUR ERAKUNDEA-ENTIDADES CULTURALES

DONOSTIAKO UDALEKO: LEGE ZUZENDARIA / DIRECCION JURIDICA:

Juan Carlos Etxezarreta

DONOSTIAKO UDALEKO: ZINEGOTZIAK /CONCEJALES -CONCEJALAS

M^a Jesús Idoeta

Jaime Dominguez-Macaya

GIZARTE KONTSEILUAREN IDAZKARITZA TEKNIKOA /

SECRETARIA TECNICA DEL CONSEJO SOCIAL:

Judith Moreno

Sonia Galache

Arantza Vázquez

<p>PARTAIDETZARI BURUZKO DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN</p>	<p>POLITIKOAK POLÍTICAS-POLITICOS</p> <p>Emakumezkoak / Mujeres = 4 Gizonezkoak / Hombres = 4</p>
	<p>HERRITARRAK CIUDANÍA</p> <p>Emakumezkoak / Mujeres = 9 Gizonezkoak / Hombres = 13</p>
	<p>TEKNIKARIAK TÉCNICAS Y TÉCNICOS</p> <p>Emakumezkoak / Mujeres = 3 Gizonezkoak / Hombres = 3</p>

<p>Dokumentu honetan jaso dira saioan zehar joratu diren gaiak eta egin diren ekarpenak, bertan landutakoaren lekukotza eduki ahal izateko.</p> <p>Ez dira hitzez hitz jaso saioko parte hartzaileek egin dituzten adierazpenak, baina modu fidagarrian bildu nahi dira esandakoaren edukiak, baita, horrekin batera, ikuspegi orokorretik laburbilduta ere.</p>	<p>El presente documento recoge las cuestiones tratadas y las intervenciones que se realizan a lo largo de la sesión, con objeto de poder disponer de un testimonio de lo allí tratado.</p> <p>No presenta de manera literal lo expuesto por las diferentes personas que participaron en la sesión, pero sí pretende reflejar su contenido de manera fidedigna y, a su vez, abreviada desde una perspectiva general.</p>
--	--

Saioaren bilakaera / Desarrollo de la sesión:

1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea

Gizarte Kontseiluaren presidentek, Daniel Zulaikak, bertaratutakoak agurtu ditu eta bilerari hasiera eman dio 17:05ean.

Jarraian, aurreko bileraren aktak onartzea proposatu du, iruzkinik dagoenean izan ezik.

Akta onartutzat jo da.

2. Aurkezpena

Gizarte Kontseiluaren presidentek, bileraren gai zerrenda aurkeztu ondoren, beste gizarte kontseiluekin batera lantzen ari diren gestioak aipatu ditu labur-labur; hain zuzen, Bilboko alkatea den Juan María Aburto jaunarekin eta hiri bereko alkate ohia den Ibon Areso jaunarekin egindako bilera aipatu du. Halaber, aipatu du lanean ari dela datorren urtean egingo den Gizarte Kontseiluaren lehenengo bileran hiru hirietako (Bilbo, Gasteiz eta Bartzelona) ordezkariak parte har dezaten.

Era berean, azaldu du lan ildo hori gizarte kontseilu propioei buruz hausnartzeko eta lankidetzan landu beharreko hainbat gai aukeratzeko ireki dela.

17:09ean, hiriko alkatea den Eneko Goia jaunari eman zaio hitza.

3. Hiriaren oraingo alderdiak

Eneko Goiak azaldu du euskal hiru hiriburuek ere lan ildo bat hasi dutela, Orkestrarekin elkarlanean, ahaleginak batzeko eta proiektuak elkarrekin

1. Lectura y aprobación del acta de la sesión anterior

El presidente del Consejo Social, Daniel Zulaika, saluda a las personas presentes y declara abierta la sesión a las 17:05 h.

Seguidamente, propone la aprobación del Acta de la sesión anterior, salvo que haya algún comentario al respecto.

El acta queda aprobada.

2. Introducción

El Presidente del Consejo Social presenta el orden del día de la sesión y, a continuación, se refiere brevemente a las gestiones que se están realizando con otros consejos sociales; en concreto, alude a la reunión desarrollada con el Alcalde de Bilbao, Juan María Aburto, y con el ex-alcalde de la misma ciudad, Ibon Areso. Adelanta también que se está trabajando para contar con la presencia de representantes de tres ciudades (Bilbao, Vitoria–Gasteiz y Barcelona) en la primera reunión del Consejo Social del próximo año.

Así mismo, explica que esta línea de trabajo conjunta se ha abierto para reflexionar sobre los propios consejos sociales y para establecer una serie de temáticas sobre las que trabajar en colaboración.

A las 17:09 cede la palabra a Eneko Goia, alcalde de la ciudad.

3. Aspectos actuales de la ciudad

Eneko Goia explica que desde las tres capitales vascas también se ha iniciado una línea de trabajo, en colaboración con Orkestra, para unir fuerzas y

garatzeko. Hiru hiriburuek akordio bat sinatu dute horretarako; proiektu hasi berria dela esan du.

Alkateak hitza hartu ondoren, 17:30ean, Gizarte Kontseiluaren presidentek Kepa Korta jaunari, Estrategia Bulegoaren zuzendari koordinatzaileari, eman dio hitza.

4. E2030DSS helburuak eta ildo estrategikoak

Aurkezpen bat oinarri hartuta, Kepa Kortak bere azalpenari ekin dio, garatutako prozesuaren laburpena eginez, dokumentu honetara iritsi arte. Kontatu du prozesua diagnostiko estrategiko batekin hasi zela, joerak eta hiriaren egoera aztertu zirela,.... Gogorarazi du diagnostiko estrategikoa onartu ondoren, posizionatze estrategikoa landu zela, baita erronkak ere, eta, helburu estrategikoak onetsi eta gero, pandemia hasi zenean, berrikuspina eta konparaketa bat egin zen, 2030eko testuinguruan edo helburu estrategikoetan aldaketak egin behar ziren ikusteko. COVID-19aren ondoriozko inguruabarrak direla eta, elkarrizketen bidez lan egiten jarraitu da, bi lantalde ere aktibatu (Gastronomia eta Bio/Osasu sektorea) eta prozesu osoan zehar azaleratutako ideiak landuz joan arren. Hori guztia ekintza ildo estrategikoak ezartzeko dokumentuan adierazi da; dokumentua, Plan Estrategikorako Lan Batzordearekin konparatu ondoren, Gizarte Kontseilura bidali da. Gainera, ibilbideak jarraituko duela, eta ekintzak garatuko direla eta monitorizazio sistema diseinatuko dela esan du.

Jarraian, prozesuan zehar hainbat esku-hartze eta ekarpen bildu direla eta aurkezten duen dokumentua horren guztiaren eta konparaketa teknikoaren emaitza dela gogorarazi ondoren, ekintza ildoen garapena banan-banan azaldu behar da, helburuen arabera, ekonomiarekin lotutako helburuak batzen dituen lehenengo "multzotik" hasita.

desarrollar proyectos en común. Se ha firmado un acuerdo entre las tres capitales a tal efecto y señala que es un proyecto que está en sus inicios.

Tras la exposición del alcalde, a las 17:30, el Presidente del Consejo Social cede la palabra a director-coordinador de la Oficina de Estrategia, Kepa Korta.

4. Objetivos y líneas estratégicas E2030DSS

Apoyado en una presentación, Kepa Korta comienza su exposición realizando un breve recorrido por el proceso desarrollado hasta llegar al presente documento. Relata que este proceso comenzó con un diagnóstico estratégico, un análisis de tendencias, el escenario de ciudad,.... Recuerda que se aprobó el diagnóstico estratégico, a continuación se trabajó el posicionamiento estratégico, los retos y, tras aprobar los objetivos estratégicos, con la irrupción de la pandemia, se llevó a cabo una revisión y contraste para ver si era necesario realizar cambios en el escenario 2030 o en los objetivos estratégicos. Debido a las circunstancias derivadas del COVID-19, añade, se ha seguido trabajando a través de entrevistas, aunque también se han activado dos grupos de trabajo (sobre Gastronomía y el sector Bio/Salud), y se han trabajado las ideas que han salido a lo largo de todo el proceso. Todo ello se ha reflejado en el documento de despliegue de líneas de acción estratégicas, que tras su contraste con la Comisión de Trabajo para el Plan Estratégico, ha sido enviado al Consejo Social. Señala también que el recorrido continuará con el despliegue de acciones y con el diseño del sistema de monitorización.

A continuación, tras recordar que durante el proceso se han recogido diferentes intervenciones y aportaciones y que el documento que presenta es el resultado de todo ello tras el contraste técnico, procede a desglosar el despliegue de líneas de acción por objetivos, comenzando por un primer "bloque", en

Lehenengo multzoa azar azalduta, ikus-entzuleei galdetu die ea ekarpenik egin nahi duten; esku-hartzerik ez dagoenez, bigarren helburu multzoa eta ekintza ildoak azaltzen jarraitu du, eta berriz animatu ditu bilkurako parte-hartzaileak hitza hartzera.

Parte-hartzaile batek galdetu du ea aurreikusten diren neurri zehatzak, hiriko musikaren sektorea bultzatzeko, 3. helburuari dagokionez iragarri diren ildoek gain, hala nola musika zuzenean jotzeko programak egiteko laguntzak, tokiko musikaren programazioa (...). 6. helburuan, gaztetzeari, talentua erakartzeari dagokionez, (...) donostiar berriak bezalako kontzeptuak aipatu dira eta ea topatu diren talentu hori erakartzeko oztopo edo zailtasunak galdetu da; era berean, 8. helburuari dagokionez, xehetasunak eman dira, gizarte bazterketa eta berdintasuna bezalako terminoen esanahiari dagokionez.

Horri guztiari erantzunez, garapenaren norainokoa azaltzeko adibideak aipatu dira: adibide moduan, musikaren arlo zehatzean, hirian musikaren sektorea garatzeko estrategia bat lantzea planteatzen da. Halaber, honako hau adierazi da garatutako prozesuari dagokionez: "hausnarketa estrategikoaren erabilerak landu behar denaren inguruan ados jartzeko balio izan du, lortu nahi ditugun helburuetan arreta jarrita (...); ondoren, berariazko neurriak hartuko dira, gobernu-ekintza sustatuko da,...."; gainera, "zertan emango dugun denbora", "zertan jarriko dugun arreta", zer lehenetsiko den eta prozesuan zehar egindako eztabaidaren eta hausnarketaren emaitza zer den adostearen garrantzia azpimarratu du.

Esku-hartzeen ostean, Kepa Kortak jarraitu du gainerako helburuen xehetasunak azaltzen (9tik 15era bitarteko helburuak). 17:56an, aurkezpena amaitu

el que se engloban los objetivos más relacionados con la economía.

Una vez finalizado el recorrido rápido por el primer bloque, interpela a la audiencia por si desea realizar alguna aportación, al no haber intervenciones prosigue con el desarrollo del siguiente bloque de objetivos y líneas de acción y vuelve a emplazar a las personas que participan en la sesión a que tomen la palabra.

Desde la audiencia se pregunta por medidas concretas, más allá de los enunciados de las líneas enunciadas, en relación al objetivo 3, para favorecer el sector de la música en la ciudad, como ayudas para la programación de música en vivo, programación de música local (...). En el objetivo 6, en relación a rejuvenecimiento, a la captación de talento, (...) se habla de conceptos como las y los nuevos donostiaras y también se pregunta si se han identificado barreras o dificultades para la captación de dicho talento; asimismo, respecto al objetivo 8, se hacen puntualizaciones respecto al significado de los términos exclusión social e igualdad.

A todo ello se responde citando ejemplos sobre hacia dónde se encamina el despliegue; como muestra, en el ámbito concreto de la música, se plantea la elaboración de una estrategia para el desarrollo del sector de la música en la ciudad. También se señala que el proceso desarrollado, el "ejercicio de reflexión estratégica, ha servido para ponerse de acuerdo sobre lo que trabajar, enfocando hacia los objetivos que perseguimos (...) y a esto seguirá el despliegue de medidas específicas, la acción de gobierno,....", haciendo hincapié en la importancia de ponernos de acuerdo en "a qué nos vamos a dedicar", dónde se va a poner el foco, la priorización, que es fruto del debate y la reflexión conjunta desarrollados a lo largo del proceso.

Tras las intervenciones, Kepa Korta continúa con el desglose de los objetivos restantes (Objetivos del 9 al 15). A las 17:56, tras finalizar su presentación solicita

ondoren, egokitzat jotzen dituzten iruzkinak eta ekarpenak egiteko eskatu die Gizarte Kontseiluko kideei, bereziki, behar bezala adierazi ez diren kontuak aipa ditzaten; bide batez, gogorarazi die aurkeztutakoa jarraituko duen prozesu bateratu osoaren emaitza dela, eta elkarrekin landuko diren eta ekarpenak egiteko aukera emango duten ekintza eta proiektuak garatuko direla aurrerantz.

Parte-hartzaileek aipatu dute helburu estrategikoen artean kirolaren falta igartzen dela, kirol alderdi guztiek hiriarentzat duten garrantzia eta indarra aipatuz (kirola-osasuna, kirola-aisialdia, kirola-eragile ekonomikoa). Kirola 13. helburuaren esparruan agertzen dela azaldu da, eta neurriak eta ekintzak ezartzean garatzen da gehiago; ondoren, kirola hobeto islatzeko modu onenari buruzko eztabaida labur bat ireki da.

Bestalde, epe ertain eta luzerako estrategia eta ekintzak ezartzeko garrantzia aipatzen da, hiria nora joatea nahi den kontuan hartuta; esku-hartze hori egin duenak hiriko erronka ekonomikoak beste norabide batean joan daitezkeela adierazi du; gainera, gai batzuei buruzko erreparoa azaldu ditu, hala nola turismoaren kasuan, dokumentuak "turismo jasangarria" aipatzen duela, baina hiriak nekez onar dezakeen "boom turistikoa" izan duela; bestalde, "klima-aldaketaren aurkako borroka" "jasangarria" edo "merkataritzari laguntzea" aipatzen da, baina hori guztia garatzen diren politika eta proiektuetan adierazi behar da modu koherentean. Horrez gain, hiri honetara etortzen diren pertsonen gizareratzeaz hitz egiten da, donostiar berriez, alegia, beren eskubideak eta enplegu duina, etxebizitza duina aipatuz,... Auzoek proiektu garrantzitsuak, eragileak dituztela azpimarratzen da, hirigintza jarduketatik haratago, deszentralizazio ekonomikorako bideari ekiteko, "hiria orekatze" aldera.

de las y los miembros del Consejo Social presentes que realicen los comentarios y aportaciones que crean oportunos y, de manera especial, que indiquen aquellos aspectos que consideren que no están reflejados adecuadamente, recordando que lo presentado es el resultado de todo un proceso compartido que continuará con el despliegue de acciones y proyectos que también se va a trabajar en común y dónde también se podrán realizar aportaciones.

Desde la audiencia se señala que se echa en falta el deporte, como un objetivo estratégico, en sí mismo, aludiendo a su importancia y potencial para la ciudad en todas sus vertientes (deporte-salud, deporte-ocio, deporte-motor económico). Se comenta que el deporte aparece recogido en el ámbito del objetivo 13 y tiene un mayor desarrollo en el despliegue de medidas y acciones y se abre un pequeño debate, sobre el mejor modo para que el deporte aparezca reflejado de una manera más desarrollada.

Por otra parte, se menciona la importancia de establecer estrategias y acciones a medio y largo plazo sobre hacia dónde se quiere que vaya la ciudad; quien realiza esta aportación manifiesta que los retos de ciudad a nivel económico podrían ir en otro sentido; muestra además sus reticencias en algunos aspectos, como en el caso del turismo, respecto al cual, señala, en el documento se habla de "turismo sostenible", cuando la ciudad ha tenido un "boom turístico" que difícilmente ha podido asimilar, o se habla de "sostenible", "lucha contra el cambio climático" o el "apoyo al comercio", pero, puntualiza, todo esto debería tener su reflejo y coherencia en las políticas y proyectos que se desarrollan. Se habla también de la inclusión de las personas que vienen a esta ciudad, las nuevas y nuevos donostiaras, y sus derechos a empleo digno, vivienda digna,.. Y se incide en que los barrios tienen que tener proyectos importantes, tractores, más allá de la adecuación urbanística, para iniciar un camino de descentralización económica, para "equilibrar la ciudad".

Beste ekarpen batzuk plan osoarekiko gogobetetasun orokorra adierazteko egiten dira, batez ere, immigrazioan arreta jartzeagatik; ondoren, etorkinek hiriarentzat duten garrantzia nabarmentzen da, donostiar berrien, beren ekarpen eta lanaren, kulturaren, ezagutzaren garrantzia...

18:12an, Gizarte Kontseiluaren presidentek Jaime Domínguez-Macaya jauna deitu du, gai zerrendako hurrengo puntuari heltzeko.

5. 2021eko aurrekontu egoera eta ildo nagusiak, 2022ri dagokionez

Jaime Domínguez-Macayak, Ogasun eta Finantzen zinegotzi ordezkariak eta Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren idazkariak, aurrekontuari buruzko mintzaldiari hasiera emateko, Konstituzio Auzitegiaren epaia aipatu du, –bere ikuspuntutik– "izen okerreko udal plusbalioei" buruzkoa; hain zuzen, plusbalio horiek hiri izaerako lurren balio-gehitzearekin zerikusia dute. Ebazpen horren arabera, "ezin da plusbaliorik egon, kudeatzen den moduan"; erabaki hori oraindik argitaratu gabe dagoela eta berarekin ados ez dagoela dio. Halaber, Gipuzkoako lurraldeko foru arauak dagoeneko aldatu egin dira zentzu horretan; hortaz, ez dago garbi epaiak lurralde historikoei eragingo dien eta, hala bada, zein neurritan, eta hori guztia zalantza handia da aurrekontuak egiteko, zerga hori, izan ere, bigarrena baita udalaren zerga propio garrantzitsuenen artean (13,5 milioi euro inguru).

Aurtengo berezitasuna, aurreko urteekin konparatuta, Next Generation funtsak dira, diru kopuru handi bati osatzen dutenak. Itzuli behar ez diren dirulaguntzak dira (70.000 milioi, oro har, estatu osoarentzat) eta maileguak emateko laguntzak; estatuari, autonomia erkidegoei, foru aldundiei, udalei, erakunde publiko

Otras aportaciones, giran en la línea de manifestar la satisfacción en general por el conjunto del plan y en especial por poner un foco en la inmigración; y posteriormente, se hace hincapié en la importancia de las personas inmigrantes para la ciudad, en las y los nuevos donostiarras y su aportación y trabajo, en cultura, conocimiento, ...

A las 18:12 el Presidente del Consejo Social emplaza a Jaime Domínguez-Macaya a abordar el siguiente punto del orden del día.

5. Situación presupuestaria 2021 y líneas prioritarias del correspondiente a 2022

Jaime Domínguez-Macaya, Concejal Delegado de Hacienda y Finanzas y Secretario de la Junta de Gobierno Local en el Ayuntamiento, comienza su disertación sobre el presupuesto citando la sentencia del Constitucional en relación a las -desde su punto de vista- "mal llamadas plusvalías municipales", las cuales se refieren, en concreto, al incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana. Señala que dicha resolución apunta a que "no puede haber plusvalía tal y como se está gestionando", añade que dicho pronunciamiento aún no se ha publicado y también manifiesta que está en desacuerdo con el mismo. Señala así mismo que las normas forales del territorio de Gipuzkoa ya se modificaron en este sentido, por lo que tampoco está claro si esta sentencia afectará a los territorios históricos o en qué medida, y que todo esto supone una gran duda de cara a la elaboración de los presupuestos, porque este impuesto es, de hecho, el segundo impuesto propio más importante para el ayuntamiento y ronda los 13,5 millones de euros.

Otro elemento diferencial este año respecto a otros años, prosigue, son los fondos *Next Generation*, que representan en su conjunto una gran cantidad de dinero. Son ayudas a fondo perdido (70.000 millones de manera global para el estado) y ayudas a préstamo, y van dirigidas al estado, a las comunidades

zein pribatuei zuzenduta daude, eta programa eta laguntza moduan planteatzen dira.

Jarraian azaldu du udalak betetzen dituela betebeharrak, gai horri dagokionez; bere garaian, iazko abuztuan, proiektuen norabideari buruzko plan bat taxutu zen, "Next finantzaketa" horretan zer proposamen egin litekeen aztertzeko, funtsei buruzko informazio gutxi izanda ere. Ondoren, xehetasun gehiago lortu ahala, aldatuz joan da proposamenen norabidea, eta udalak, Donostiako Sustapenaren bitartez, proposamenak zehaztu ditu, deialdi egokietan guztira 40 milioi euroko laguntzak ekar ditzaketen proiektuak aurkeztuz.

Jarraian, xehetasunez azaldu du nola jaso diren aurrekontuan Next deialdietan aurkeztutako proiektuak gauzatzeko gastu aurreikuspenak, udalari dagokion zatiri dagokionez; zati hori guztira 6,2 milioi izango litzateke. Proiektu horietako batzuk gauzatu egingo dira, Europako finantzaketa jasotzen ez bada ere, adibidez, autobus elektriko adimendunaren proiektua; hori dela eta, dagozkion finantza aurreikuspenak egin dira; halaber, hurrengo deialdietarako aurreikuspenak egin dira, "hainbat kreditu handigarri utzi dira Next Generation" delakoak dituen 8 ardatzetako bakoitzeko".

Bestalde, aurrekontuaren eta pandemia osteko susperraldi "ekonomikoaren" arteko harremana aipatu da: modu positiboan garatzen ari dela ematen du. Hitzartutako zergei dagokienez (BEZ, PFEZ,...), Euskal Autonomia Erkidegoko zerga bilketa osoaren ia % 1 Donostiatik dator; horri dagokionez, Jaime Domínguez-Macayak dio Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2021erako aurreikuspenen arabera, diru bilketak gaintitu egingo ditu aurreikuspen zenbatetsiak (2020an egindakoak), hau da, 4.648 milioi euro. Aurreikusitako aurrekontu

autónomas, a las diputaciones, a los ayuntamientos, a lo público y a lo privado, y se van planteando en forma de programas y ayudas.

Continúa explicando que como ayuntamiento se están cumpliendo los deberes a este respecto; en su momento, en agosto del año pasado, se elaboró un plan sobre hacia dónde podrían ir los proyectos, analizando qué propuestas podrían encajar en esta "financiación Next", aún sin tener demasiada información al respecto. Posteriormente, añade, a medida que se ha contado con mayor concreción se ha ido llevando a cabo un re-direccionamiento de las propuestas y el ayuntamiento, por medio de Fomento San Sebastián, ha ido perfilando las propuestas, presentándose a las convocatorias oportunas proyectos que podrían representar en conjunto unos 40 millones de euros.

Prosigue detallando cómo se han reflejado en el presupuesto las previsiones de gasto de la parte que correspondería al ayuntamiento para la ejecución de dichos proyectos presentados a las convocatorias Next, la cual ascendería a un total de 6,2 millones. Para algunos de estos proyectos se contempla su ejecución, llegue o no llegue la financiación de Europa, tal es el caso del autobús eléctrico inteligente, por lo que se han realizado las previsiones financieras pertinentes; también menciona que se han tomado previsiones para los próximas convocatorias, "se han dejado una serie de créditos ampliables, para cada uno de los 8 ejes que tienen los Next Generation".

Por otro lado se refiere a la relación del presupuesto con la recuperación "económica" de la pandemia, la cual parece desarrollarse de forma positiva. Respecto a los impuestos concertados (IVA, IRPF,...), de los cuales cerca del 1% de la recaudación total de la Comunidad Autónoma de Euskadi-CAE viene a Donostia / San Sebastián, Jaime Domínguez-Macaya indica que las previsiones de la Diputación de Gipuzkoa para el 2021 apuntan a que la recaudación superará las previsiones estimadas (realizadas en 2020), que

betearazpena, likidatuko dena, aurreikuspen horien arabera, hasieran aurreikusitakoa baino handiagoa izango da (ia 11 puntu gehiago) eta, igoera hori ehuneko handiagoan gertatuko da Gipuzkoan, EAEko gainerako eskualdeekin konparatuta. Ildo berean, aurreikusten da (zenbatespenen arabera) Udal Finantzaketako Foru Fondoak hasieran aurreikusitakoak baino diru sarrera handiagoak izango dituela 2021. urterako.

2022ko aurrekontuari dagokionez, zerga-bilketaren inguruko aurreikuspenak, Gipuzkoa osorako itundutako zergei dagokienez, 5.356 milioi euro izango dira eta 16.290 milioi euro, EAE osorako (EAEko eta 2021. urterako, 14.250 milioi euro izango zela aurreikusi zen lehenago). Horrek esan nahi du Gipuzkoarentzako aurreikuspenek zerga-bilketaren igoera adierazten dutela: 15,22 datorren 2022. urterako, hau da, EAE osoan baino gehiago (14,32). Jarraian, zerga desberdinei dagozkien zenbatekoak azaltzen ditu (PFEZ, sozietateen gaineko zerga,...); zenbaki horietan guztietan zenbatespenak gainditu dira. Era berean, kudeaketa propioko BEZari dagokionez, aurreikusten da 2021eko zerga-bilketa % 7 handiagoa izango dela hasieran aurreikusitakoarekin konparatuta eta, aldi berean, BEZa doitzearen ondoriozko diru-sarrerak ere aurreikusitakoak baino handiagoak izango dira.

Ondoren, 2022. urterako finkatutako aurrekontua, udalarena eta bere erakunde autonomo eta sozietate eta entitate publikoena, 424,8 milioi eurokoa dela adierazi du; erreferentzia moduan aipatu duenez, 2021erako aurrekontua 400 milioi eurokoa zen, eta are handiagoa 2020an (432 milioi euro) eta 2019an.

Jarraian, udalaren diru-sarreraren banaketa azaltzeari ekin dio: finkapenaren foru funtsa aurrekontuaren heren bat baino handiagoa da; beste heren bat udalaren zergek, tasek eta prezio publiko propioek

estaban en 4.648 millones de euros. La ejecución presupuestaria prevista que se liquide será, según dichas estimaciones, mayor de lo previsto inicialmente (cerca de 11 puntos por encima) y, este incremento, se producirá en porcentaje mayor en Gipuzkoa en comparación con el conjunto de la CAE. En la misma línea, se prevé (según indican las estimaciones) que el Fondo Foral de Financiación municipal contará para el año 2021 con ingresos superiores a lo previsto inicialmente.

Respecto al presupuesto de 2022, las previsiones de recaudación en lo referente a los impuestos concertados para el conjunto de Gipuzkoa se estiman en 5.356 millones de euros y para el conjunto de la CAE en 16.290 millones de euros (cuando para la CAE y para 2021 la cifra estaba en 14.250 millones de euros). Lo que indica, señala, que las previsiones para Gipuzkoa estiman un incremento de la recaudación del 15,22 para el próximo año 2022, superior al del conjunto de la CAE (14,32). Continúa desgranando cifras respecto a los diferentes impuestos (IRPF, impuesto de sociedades,...) siendo en todas estas cifras manifiesto que se han superado las estimaciones. Igualmente respecto al IVA de gestión propia, se prevé que la recaudación para 2021 sea un 7% superior respecto a la inicialmente prevista, e igualmente, los ingresos por ajustes de IVA, también aportarán cantidades superiores a las previstas.

A continuación expone que el presupuesto consolidado para 2022 para el ayuntamiento y sus organismos autónomos y sociedades públicas y entes es de 424,8 millones de euros y, como referencia, indica que el presupuesto para el 2021 se cifró en 400 millones de euros, siendo superior en 2020 (432 millones de euros) y en 2019.

Procede seguidamente a detallar la distribución de los ingresos del ayuntamiento, donde el fondo foral del consolidado supone algo más de un tercio de dicho presupuesto, otro tercio lo componen los impuestos,

osetzen dute (adibidez, ondasun higiezinaren gaineko zerga, saneamenduarien, ibilgailuen gaineko zergak, ekonomia-jardueren gaineko zerga, uraren gaineko zerga, eraikuntzen gaineko zerga,...); horiei erakunde publikoen diru sarrerak gehitu behar zaizkie,...

Bide batez, aipatzen du aurrekontuan erakundeei egin beharreko ekarpenaren ahalegin berezia, herritarrei kalitatezko zerbitzu egokia eman ahal diezaieten eta beren aurrekontuan defizita saihesteko, kontuan hartuta erakunde horietako batzuetan (adibidez, Donostia Kirola, Donostia Kultura, Dbus,...) jaitsi egin dela harpidedun edo jardueren kopurua eta, ondorioz, diru-sarrerak.

Jarraian, labur-labur azaldu du aurrekontuaren banaketa, finkatutako aurrekontuaren % 37 1. kapitulari (langileria gastuak) dagokiola esanez; 2. kapitulari, hau da, ondasun zehatzak eta zerbitzuak (argia, gasolina, ura,...) % 36 dagokio; azkenik, hirugarrenentzako dirulaguntzek % 8 osatzen dute; gutziaren % 13 inbertituko dena da, hau da, 54,5 milioi euro. Azken idazpen horri dagokionez, aurten gehien igo den idazpena da, 2021. urtearekin konparatuta: % 22,7; bestalde, aurrekontua, oro har, % 6,21 handitu da.

Halaber, areagotu dira gizarte gaietara bideratzen diren ekarpenak, adibidez, urbanizatzerako bideratutakoak (Lorategi Hiria, Aldakoenea, Infernua,...); partaidetza bidezko aurrekontuen prozesua eta, bukatzeko, Ekialdeko Barrutiari dagokion idazpena ere aipatu ditu.

Mintzaldia bukatzeko, esan du hurrengo osoko bilkuran, abenduaren 19koan, 2020. urterako aurrekontu hori onartzea espero dela; bertaratutakoei gogorarazi die aurrekontua publikoa dela eta Gizarte Kontseiluan parte hartzen dutenen eskura jartzen dela, edozein azalpen eskatu edo galdera egiteko.

tasas y precios públicos propios del ayuntamiento (como el IVI, los impuestos de saneamiento, vehículos, IAE, impuesto sobre el agua, impuesto de construcciones,...), a lo que se suma los ingresos de los entes públicos, ...

Alude también al sobreesfuerzo que supone en el presupuesto la aportación a realizar a sus entes para que puedan prestar el servicio a la ciudadanía con la calidad y manera adecuadas, porque algunos de estos entes, por ejemplo Donostia Kirola, Donostia Kultura, Dbus, ... han visto reducido su número de abonados o de actividades y por consiguiente sus ingresos, y para que su presupuesto no tenga déficit.

Seguidamente realiza unas pinceladas sobre el reparto del presupuesto, indicando que el 37% presupuesto consolidado se dedica a capítulo 1, es decir a gastos de personal; al capítulo 2, bienes concretos y servicios (luz, gasolina, agua,...), se dedica un 36%; y finalmente, lo que se subvenciona a terceros, un 8%; y lo que se va a invertir, un 13% del total, es decir 54,5 millones de euros; menciona que esta última partida es la que más ha incrementado este año respecto al de 2021, un 22,7% y añade que el presupuesto, en general, ha incrementado un 6,21%.

Indica también que han aumentado las aportaciones dedicadas a lo social, menciona las dedicadas a urbanizaciones (Ciudad Jardín, Aldakoenea, Inferno), menciona por otra parte el proceso de presupuestos participativos y, finalmente, se refiere a la partida correspondiente al Distrito Este.

Finaliza su disertación señalando que en el próximo Pleno del 19 de diciembre se espera aprobar este presupuesto para el año 2020, recuerda a la audiencia que el presupuesto es público y se pone a disposición de las personas que asisten al Consejo Social para cualquier aclaración o pregunta.

Parte hartzaile batek iruzkina egin du, aurkeztutako informazioaren "dentsitatea" azpimarratzeko: ez du ulertzea eta interpretatzea errazten; hizlariak - beharrezkoa izanez gero- informazio xeheagoa emateko aukera proposatzen da. Alkateak hartu du hitza eta gogorarazi du aurkeztutako aurrekontu proiektua jarraian prozesu batean sartuko dela, non udal taldeek zuzenketak egin ditzaketen; beraz, nolabait alda daiteke, baina zenbateko osoak jarraituko du aipatu 424 milioi eurokoa izaten.

6. Eskariak eta galderak

18:42an, Daniel Zulaikak galdera eta/edo iruzkinak egiteko txanda ireki du; ekarpenik egon ez denez, bilkurari amaiera eman zaio.

7. Bilkurari amaiera ematea

Parte hartzea eskertu eta hurrengo Gizarte Kontseilua 2022ko urtarrilaren 25ean (behin-behineko data) bilduko dela esan ondoren, presidentek bilkura amaitu du, 18:43an.

Se realiza un comentario por parte de las personas asistentes para hacer hincapié en la densidad de la información que se ha presentado, lo que no facilita su entendimiento e interpretación y se plantea el ofrecimiento por parte del ponente para aportar información más detallada en caso necesario. El alcalde toma la palabra y recuerda que el proyecto de presupuesto presentado pasará a continuación por el proceso en el que los grupos municipales pueden hacer enmiendas, por lo que puede modificarse en alguna manera, si bien el total se mantendrá en los mencionados 424 millones de euros.

6. Ruegos y preguntas

A las 18:42, Daniel Zulaika abre un turno para preguntas y/o comentarios; al no haber aportaciones se procede al cierre de la sesión.

7. Cierre de la sesión

Tras agradecer la asistencia y señalar el 25 de enero del 2022 como fecha provisional para el próximo Consejo Social, el Presidente cierra la sesión, a las 18:43 h.

Donostia / San Sebastián, 2021/11/04